

# Akorde minorrak Bilbon

Bilboko Kontserbatorioak uko egin dio sei ikasturte barru eskaintza elebiduna egiteari, bertako kide gehienak alde dauden arren. Erabakitze ahalmena daukatenez, baina, nahiago izan dute euskarak orain arte bezain zokoratuta jarrai dezala. Denetik dago EAEko kontserbatorioetan, baina oro har esan daiteke euskararen soinu-banda doinurik tristeenekin eginda dagoela.

UNAI BREA

Argazkia: Iñigo Azkona

OSKAR GEREÑU musika irakaslea da. Hamalau urte egin zituen lanean Calahorran, Espainiako Errioxan, 2007ko irailean Bilboko Juan Crisóstomo de Arriaga Kontserbatorioa iritsi zen arte. Euskaltzalea da Gereñu, eta berehala ohartu zen Bilboko giroa, hizkuntzaz den bezainbatean, ez zela berak nahi zukeena: “Kurtsoa hasi eta berehala, lehenbiziko irakasle klaustroan, esan nuen ez nuela ia alderik igaritzen, euskarari dagokionez, Bilboren eta Calahorraren artean. Orduan konturatu nintzen sentsibilitate bi zeudela gai horrekiko, biak ia antagonikoak”. Urte bi igaro dira, eta euskararen aurkakoa gailendu da nabarmen.

Klaustro hura eta gero, euskara taldea sortu zen kontserbatorioan, Gereñuren ekimenez. Borondate hutsetik harago joan nahi zuten, gauzak ondo egin nahi zituzten, eta ikasturte oso batek egin zien ihes euskara plan bat diseinatzeko modurik onenaren bila. Azkenean, Ulibarri programaren berri izan zuten, Eusko Jaurlaritzak sustatuta ikastetxeak euskalduntzeko helburua duen ekimena. “Jaurlaritzan esan ziguten gure ordura arteko urratsak, diagnostikoa barne, zuzenak zirela, eta euskalduntze plana programa horren barruan eginda dohainik aterako zitzaigula”. Gere-

ñuk berak eta Unai Igartua lankideak hartu zuten batez ere plan hori diseinatzeko ardura, Jaurlaritzak jarritako aholkulari baten laguntzaz. Ordurako, ikasturtea agortuta zegoen. Irailera arte itxaron behar.

## Euskaldun asko musika gaztelaniaz ikasten

Berehala jarri ziren lanean. Lehenengo eta behin, egoeraren diagnostikoa egin zuten xehe-xehe. Galdera bi izan ziren azterketaren ardatza: “Zein hizkuntza eredutan ikasten duzu kontserbatoriotik kanpo?”, eta “zein hizkuntzatan nahi zenuke ikasi kontserbatorioan?”. Bigarren galderari, 497 ikasleetatik 214k erantzun zioten “euskaraz” eta 271k “gaztelaniaz”. Beste hamabiri bost axola zien, behintzat euskara zekiten seinale.

Inkestako lehen galderak, berriz, argi utzi zuen D ereduan dabilzan ikasleak gehiengo direla Juan Crisóstomo de Arriagan: %41. Horietan, gutxi gorabehera lautik batek esan zuen nahiago zuela gaztelania musika ikasketak egiteko. D ereduan ibiltzea eta euskarenganako atxikimendua ez datoz guztiz bat.

Kontuak kontu, ia ikasleek erdiak euskaraz ikasi nahiko luke Bilboko Kontserbatorioan, hortaz. Oraingoz, amets hutsa. Joan den ikasturtean, 77 irakasletik 46k betetzen

zuten euskarazko hizkuntz eskakizunen bat, baina hiruk besterik ez zeukaten hirugarrena. Oskar Gereñuk dioskunez, eskolak antolatze garaian ordutegia da irizpide bakarra. “Hala, nik izan ditut gelak zazpi ikasle euskaldunekin eta erdaldun bakarrarekin”. Guztira, lengoaia musikaleko lehen hiru ikasturteetan dago aukera eskolak euskaraz jasotzeko. Hortik gora, bai lengoaia musikalak irauten duen beste hiru urteetan, bai goragoko ikasketetan, ezer ez.

Hori, taldekako lan teorikoari dagokionez. Baina kontserbatorioetako eskola gehienetan ikasle bakarrarekin aritzen da irakaslea. Euskaraz egitea, bien ezagutzaren eta borondatearen menpe dago, baina badira beste faktore batzuk. Bateko, euskarazko material falta. Besteko, irakasleen prestakuntza eskasa. Oskar Gereñuk berak, euskaraz ematea lortzen duen eskoletan, gaztelaniaren makulua erabili behar izaten du tarteka.

## Helburua: eskaintza ele bietan

Egoera hori aldatzeko, azkenik, Hizkuntz Normalkuntzako Proiektua izeneko dokumentu mardula ondu zuen gure berbakideak. Helburu nagusia ez zen apartekoa ere, dioskunez. Esaldi batez laburtu liteke: plana betetakoan, sei urte barru,

gaztelaniaz eskaintzen den eskola minutu bakoitzeko euskarazko beste minutu bat eskaintzea. Horixe zuen xede otsailean Eskola Kontseiluak bozkatu zuen txostenak, Ulibarri programan sartzeko epea agortzeaz zela. Aurretik, eta kontsulta hutserako, bozketak egin zituzten kontserbatorioko eremu guztietan (ikasle, irakasle, guraso, gainerako langileak...), eta denetan gailendu ziren Normalkuntzako Proiektuaren aldekoak. Sektore guztietako ordezkariak dituen Eskola Kontseiluak, berriz, ezezkoa eman zion.

Orain dela hamabost urte abiatu zenetik, Ulibarri programan sartzeari uko egin dion lehenengo ikastetxea izan da Bilboko Kontserbatorioa. Edo bigarrena agian. Jaurlaritzaren aholkuz, Oskar Gereñu Donostia eta Gasteizko kontserbatorioko ordezkariekin harremanean jarri zen, horietan ere prozesu bera abiarazi zezaten. Donostian onartu egin da euskalduntze proiektua, Gasteizen irakasle klaustroak berak bota du atzera. Bilbori dagokionez, ez da euskalduntze plan bat zapuzten den lehenengo aldia, Eusko Jaurlaritzako kideren batek Oskar Gereñuri jakinarazi zionez. Ezagutzen zituzten, nonbait.

### Gipuzkoan askoz hobeto

EAEko hiru hiriburuetakoa dira Jaurlaritzaren menpeko kontserbatorioak. Baina badira udaletxeenak ere, batzuk oso garrantzitsuak. “Gipuzkoan Irun eta Bizkaian Leioa, hiriburuetakoei gailentzen ari zaizkie irakaskuntzaren zenbait arlotan”, adierazi digu Gereñuk. Bi horietara jo dugu beraz, ea euskarak zer leku daukan bertan. Irunen, lengoia



214 ikasle agertu zuten klaseak euskaraz jasotzeko nahia.

musikaleko sei urteetan daude euskarazko taldeak; goragoko mailetan, ikaslearen arabera da euskaraz ikastea ala ez. Izan ere, irakasle gehienek derrigorrezkoa dute hiru-garren hizkuntz eskakizuna.

Bilbotik askoz hurbilago, bai distantziaz bai egoera soziolinguistikoz, Leioako Kontserbatorioan euskara ez dabil hain gozo. Bertako zuzendaritzari euskaltzaletasuna sumatu diogu, baina ordutegiakin arazo larria daukatela adierazi digute, arlo teorikoetan euskarazko talderik antolatzea galarazten diena. Euskararen presentzia bakarra buruz buruko eskoletan da, ahal denean noski. Kontserbatorioarekin batera musika eskola ere badute, eta hor lortu dute behintzat lehen kurtsoetan euskarazko taldeak antolatzea.

### Bilbon orain zer?

Eskola Kontseiluak Hizkuntz Normalkuntzako Proiektuari ezetz esan eta gero, ez dirudi denboraldi batez

halako ekimenik berriro abiatuko denik, are gutxiago kontuan hartzen badugu Oskar Gereñu, haize osasungarriagoen bila seguruenik, Donostiako Kontserbatorioan jardungo dela ikasturte honetan. Geratu direnei samina igartzen zaie. Pedro Guallarrek –joan den kurtsoko zuzendaria eta orain idazkaria– Gereñuren lana zein asmoak babesitu zituen une oro. Guri ere lagundu nahi izan digu erreportaje hau osatzen, baina zuzendaritza-taldea ez du alde izan. Ez diote ARGIARI adierazpenik egin nahi izan, eta kontserbatorio barruan argazkiak egiteko baimenik ere ez digute eman. Giro gaiztoak badu alde onik, erreakzioa baitakar: esate baterako, Guallarrek, ahal duen heinean, jende aurrean paratzekoak diren iragarki eta beste-lako agiriak hizkuntza bietan jartzeari ekin dio. Lan eskerga bezain txalotzekoa dauka aurretik. ■

Babeslea: Euskaltzaindia